

**BILBOKO MAGISTERITZA-ESKOLA<sup>1</sup>  
IKERKETETAN BAT DATOZEN  
HIRU CURRICULUM**

XXI. mendeko bata zenbakia nagusitu zaionean hogeiar, indibidualista bilakatu da bizitzeko estiloa. Hala ere, noizbehinka, arrankariaren kontrabiderako instintua gizakiaren portaeraraino hedatu liteke.

Gurutze Ezkurdia Arteaga, Karmele Perez Urraza eta Begoña Bilbao Bilbao Euskal Herriko Unibertsitatean dira irakasle ikerlari. Hirurak sortua da ARAKA ikertaldea. Hirurak adostu dute bakoitzaren tesietarako teorizazioa eta ia beti jartzen dira ados artikulua idazteko, berbaldiak emateko nahiz nazioarteko kongresuetan parte hartzeko.

Artikulu honetarako gurago izan dugu aurrez aurreko elkarrietzeta, pantailarik pantaila bidaiari den mezua isilekoa baino, testu idatziaren joskerari logikoa baino txandakako solasaldi dantzaria

---

<sup>1</sup> Izen ofiziala Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola da. Hala ere, bitzuek erabiliko ditudan arren, argitasunerako izenburuan-eta Magisteritza-Eskola erabiliko dut; gazteleraz Escuela de Magisterio deritzana. Maisua irakaslea da, baina irakasle asko ez gara maisu eta ez dugu ikasi Irakasle-Eskolan. Gainera, zenbat bider eman izan ditudan klase magistralak. Azken baten, nire giroko askok -hizkuntzan- gurago ditugu markako botikak generikoak baino; goragoko gertatzen zaigu Bilboko tanatorioa, Bilboko beilatokia baino, zeren gurekoak berak euskarazko ere baitira.

## **1. Zeuen ibilbide akademikoan taldean jokatzea erabaki duzue. Zer abantaila topatu diozue elkarlanari? Zer akats?**

Taldean lan egiteak ekarri diguna da, diziplina arteko ikuspegia ze<sup>2</sup>, formazioz desberdinak gara eta curriculuma ere desberdina dugu, neurri baten. Horrek eman digu ikuspegi osoa-goa, osagarria. Bestalde, eztabaida asko ere suposatuta dizkigu, ondorio bateratzura heldu arteko bidean.

Hiru ikuspegi bide bakarrera eroan arte, sakon eztabaidatu izan dugu. Bestalde, eztabaida sasoia bera tesi garaian suertatu zenez eta Paulo Iztueta zuzendariarekin ere adostasunera iritsi beharra zegoenez, nekerik ez zen falta izan, batez ere, demostratu egin behar genuelako hautatzen genuen ideia zela egokiena. Magisterio-eskola zaharreko laugarren solairuan eztabaida saio aberatsak izan genituen. Inoizka aitutzen genuen: Ene, gaur ez dugu ezer ere idatzi! Erantzuna Gurutzek nahiz Karmelek: Baina asko aurreratu dugu. Hauek dira optimistak.

–Gure taldean ez dago bururik -dio Gurutzek.

–Hori hola esanda, Gurutze...-diotso Begok.

–Gurutzek: Beno, hirurok gara maila bereko leaderrak. Horrek dakar, arlo desberdinetan aitzindaritzara nor bere curriculum edo espezializaziotik aurrera eramatea.

–Izaera aldetik ere -darraio Karmelek, diferentziak aberastu egiten du eskaintzen dena. Ez da bakarrik ikuspegi intelektual desberdinetan jokatzea; nor bere nortasunaren arabera ikuspegia izaten duelako.

Gainera, geure bizitzan izaten ditugu aldi gaitzagoak edo ataza gehiagokoak edo. Halako egoeretan taldeak eutsi egiten du. Gutariko baten ezinean ere atera daiteke aurrera proiektua une jakin baten.

---

<sup>2</sup> Ahozkoa jasotzen dugunez, lagunarteko ZE hobetsi da askotan EZEN edo ZERENen aurrean.

## **LEIOA DA ZUEN LEIHOA**

### **2. Euskal Herriko Unibertsitatean Bilboko Magisteritza-Eskolan zarete irakasle. Zein departamentutan?**

Nirea Hezkuntzaren Teoria eta Historia da -diosku Gurutzek. Gure biona, ostera, Didaktika eta Eskola Antolakuntza -gehitzen du Karmelek.

### **3. Dakidanez, Gurutze Ezkurdia da zuzendari, Begoña Bilbao Idazkari Akademikoa eta Graduak garatzeko arduraduna. Karmele Perez Urraza karguetan sarri izana da. Zein da karguari atera diozuen emaitza konkretua, karguan jarduteak merezi izan duena?**

Berez -Karmeleren erantzuna, nik unibertsitatea erakunde gisa ulertzen dut eta lan egitea ere ekipo legez hartzen dut. Azken baten, egitura baten barruan jokatzeko dugu.

### **4. Egon zitekeen horietan karguetan jardun ezik lortuko ez zen zerbait?**

Zentrorako zalantza barik. Lortu dugu martxan jartzea plan-gintza berria eta bertan berrikuntza metodologiko oso garrantzitsua -amaitzen du Begok.

### **5. Azal zeniezadakete zertan datzan berrikuntza metodologiko hori?**

Metodologietan berrikuntzak planteatu dira Irakasle-Eskola honetan. Esan behar da zentro moduan zuzendaritzan erabakia hartuta -Gurutze da zuzendari, ni gradu berriak garatzeko arduraduna segitzen du Begok- ekipoetan lan egiten dela; talde dozentek sortuz. Erabaki da lauhilabeteko bakoitzean elkarrekin lantzen diren asignaturetan irakats-talde legez jokatzea, hor dabilzan guztiak ekipo izanik. Beraz, talde moduan jokatzeko "deurie", behintzat, irakasgaiaren zati baten. Ez bakoitzaren asgnaturaren %100ean, baina bai irakasgaiaren

%20an, gutxienez. Hortik gora ere egiten da asignatura askotan. Talde moduan jokatzean, planteatzen dute edo kasu bat edo arazo bat eta horren ebazpenaren bila abiarazten dira ikasleak irakasgai guztietako ikuspegia kontuan hartuta. Orduan, metodologia aktiboetan -P.B.L. problem based learning- eta kasuaren metodologian aitzindari garelako esaten “deuskue”, ikasleak eurak ipini ditugulako problema jakin bati ebazpena ematen. Ebazpen hori modu gidatuan landu arren, era autonomoan gauzatzen dute. Ikasgelatik kanpo jardun behar dute ikasleek eta gainera, taldeka. Hau ekarpen hau zuzendaritzan egoteari esker lortu da; karguaren erabakia da; ostean eskolan zabaldu, inplementatu dena.

## **6. Zeuen esku egon da Enekuriko Magisteritza-Eskola Leioara aldatzeko ardura gorabeheratsua. Zer suposat du “etxe-aldatze” horrek alde materialetik begiraturik?**

Ba, oso estu “gengozan” leku batetik, eraikin oso egoki batera etortzea. Horretaz aparte, lanpostu aldetik, duintasuna erdietsi dugu. Izatez unibertsitate eskola hau oso zabala da; leku handiak ditu -argitzen du Gurutze zuzendariak. Errekurtso materialak ere, ezin hobeak dira. Halandaze, itxura aldaketa ere izan da.

Gero, -Karmeleren hitzetan, paisaia geografikoa ere aldatu egin da Bilboko urbetik Leioa oxigenatura etortzean.

Bilbotik aparte kokatzen den arren eta autobusean etorri beharra dagoen arren, hau giro aldetik unibertsitatea da, campusean gaude. Atetik irten eta “zientzietakoakaz” egiten dugu topo. Unibertsitate giroa bizi dute neska-mutilek. Bibliotekara joatea, kasurako, topaleku “amankomun” batera joatea da.

Horrez gainera, irakasle legez ere bisible egin gara ageriko ze, lehen bakarrik egon gara-eta han Bilbon. Egia da Sarriko hurrean zela han. Hala ere, ez genuen izaten harremanik. Hona iristean, aldiz, egon gaude harremanetan Sarrikorekin.

Gainera, parekatu egin gara; ikasketa guztietakoak gara graduak-eta.

## **7. Ez da, beraz, hiru urteko karreratik laukora pasatzea bakarrik.**

Karrerarik gehienak lau urtekoak dira. Prestigioa irabazi dugu, esate baterako, gurasoen aurrean. Hola datu batzuei so eginda -ze oraindik ez dago indarrean gradu osoa- konturatzten gara mutil gehiago matrikulatzen direla eta Lehen Hezkuntza dela Bizkaian lehenengo gradua, hau da, EHUKo lehenengo gradua. Horrekin ulertu behar dugu, ikasleek lehenengo aukeran hartzen dutela karrera hori. Magisteritzak lortu duenez lizentziaturaren prestigioa, jadanik etxeetan ere ez zaie esaten: Hori baino karrera hobea egin behar duzu. Gero, zabaldua “daukiez” ateak doktoratuak egiteko edo tesi doktoralak burutzeko. Orduan, karrera akademikorako ere zabaldu egin ditu ateak graduak, artean ez geneuzkan irekita ateak-eta.

## **8. Bertora barrura itzulita, maistren prestigioa jagon guran-eta, hainbeste ekintza burutu dituzue. Kasurako, sarturik hona Magisteritzako eraikuntzara, hormari erantsirik Friso historikoa topa genezake. Zer da hor erakusten duzuen?**

Hori ARAKA taldekook sortu dugu, geuk hirurok. Eskola honen inaugurazio ekitaldirako egindako lan akademikoa da. Kasu honetan, paperean agertu beharrean, horman agertzen da, friso gisara. Hor erakutsi da ibilbide historikoa. Magisterioko eskola honek ezagutu duen egoera eskasa izan da sarritan: toki batetik bestera, egoitza finkorik eduki barik iraun izan du. Hainbeste lekutatik igaro izan da: lehenengo Atxurin egon zen; gero, Erriberan; ostean Indautxura aldatzen da; jarraian Solokoetxera; gerratearen ostean, Cervantesera; ondorik, Deustura eta azkenik, hona Leioara.

Friso horretan ikusten da, batetik, zelan ibili izan den lekurik leku eta, bestetik, nolako planak egon izan diren ze, hau magisterio hau guztiz zentralizatutako karrera izan da, zuzen-zuzen doalako irakaskuntza ofizialerako; erabat arautua izan da. Dena den, friso horretan panel bat falta “jaku”, gizezkoen eskola,

maisuen eskola, 1902aren aurrekoa, ordura artekoa ez zelako izan goi mailako karrera; formazio profesionala izan zelako.

Gainera, friso horretan ikusten da, bai maisu-maistren eskola eta nautika zein ingeniari-tza, sakabanatuak egon direnak, formazio teknikoak eduki dutenak, zelan 1980tik aurrera EHUn integratuta dauden. Nolako ibilbidea bizi izan den ikasketak unibertsitatean integratu arte.

Azken panelean erakusten da, baita ere, 1991tik aurrera egoitza honetan beste karrera bat ere eskaintzen dela: Gizarte Hezkuntza. Gehiago oraindik, panel bereberetan ikusten da euskaraz eskaintzen direla ikasketa guztiak, baita noiztik ematen den aldaketa hori ere.

## **9. Eginez gero jauzi bat hemengo Euskal Herriko magistratzetara, zenbat zentrotan ematen da maistra titulua?**

Bizkaian, hemen EHUn, Deustuko Unibertsitatean eta Andra Mari deritzanean. Azken biok lotuta dauden arren, zentro



bi dira. Gipuzkoan, EHUKo eskola ofizialean eta Arrasatekoan. Gasteizen, EHUKoan baino ez. Nafarroan UPNn eta Ipar Euskal Herrian, unibertsitate ofizialean, baina karrera baino masterra izanik. Hango egitura desberdina da. Egiten dituzte hiru kurtsu oinarritzko eta ondoren dozentziarako berezi bi. Han modu ofizialean baino ezin egin daiteke.

### **10. Gaur egun oso kalifikazio altua duten ikasleak sartzen zaizkizue Irakasleen Eskola honetara. Ezta?**

“Numerus clausus” ezarri zenez, sartzen dira heltzen direnik onenak. Ondorioz, ikaslerik onenek hartzen dituzte plaza-rik gehienak. Horrela, berehala betetzen da. Nota altukoak baino ez dira sartzen.

### **11. Lehen kurtsora zenbat ikasle sartzen dira?**

Magisteritzara 360 eta Gizarte Hezkuntzara 100.

### **12. Ezagun duzuen informazioaren arabera, maisu-maistra berriek titulua eskuratu ostean, laster aurkituko dute lana?**

Erretiroak aintzat hartuta, esaten zen hamabost urtean %45a berriztatuko zela. Berez, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistren adina 58/59 urtean ibiliko da.

### **13. Zuen belaunaldiaren artean eta maisu-maistra ikasterra etortzen direnen artean, arrakala digitalik ez da ematen, baina oraingo unibertsitarioak lehengoekin erkatuez gero, zer desberdintasun igartzen da?**

Ezagutza sortzeko eta hartzeko eran desberdinak dira. Guk izan ditugun moduak ezagutza eskuratzeko izan dira, klase magistralak edo liburuak edo norberaren apunteak. Gaur egun beste modu batera funtzionatzen dute. Gehiago jotzen dute internetera. Gutxiago irakurtzen da. Pentsamendu arinegia erakitzen da, azalekoagoa, fragmentatuagoa. Askotan apunterik

ere ez da hartzen, iPadorekin argazkia atera eta aurrera. Ez dakite kopiatuz ere ikasi egiten dena.

Harrigarria -aurten lehenengoz gertatu zaidalako- azalpenak-eta ematen ditudan bitartean, eurak aurretiaz antolatuta dauzkate taldeak eta talde bakoitzeko kide batek hartzen ditu apunteak ordenagailuan. Besteak adi dauzkazu. Orduan, nik uste dut, ez direnez ikasten ari, ideiarenekin bat zalantzan jartzeko betarik ere ez zaie agertzen. Ondorioz, entzun bai, baina itaunik ere egin gabe, ez irakasleari, ez eta euren buruari. Apunteak hartzerakoan ulertu ez dena edo ordenatu ezin denik agertzen ez denez, joan doa dena itaunik ere egin barik. Harrigarria nire ikuspegirako.

Niri aurten gertatu zait inoiz gertatu bakoia. Hasieran ematen dut hezkuntzaren teoria. Ezta? Zelan legeek, estatuek antolatzen duten hezkuntza-sistema. Ba, aurton, horixe azaltzen nabilela, ikasleek paso egiten zuten. Azkenean galdetu egin nien: Zer? Ez duzue ulertzen? Ez zaudete gustura? Erantzuna: Ez digu interesatzen!

Nik uste dut planteatzen dutela: badago beharrik, lanik? Bada, horretarako ikasten doaz. Gainera, krisialdiaren aurretik datorren kontua da. Egiten dena zer edo zer praktikoa lortzeko egiten da. Helburu horri begira ez bada, ez da zertan jakinik. Ezagutzari ez zaio ematen garrantzirik; ikasteari; jakiteari; kultu izateari. Gero, klaseetan agertzen den giroa da berbaldietakoa-eta, ez bada derrigorrezkoa, ez dira joaten. Uste dugu gizartean gertatzen den fenomeno delatzen, ez eskolakoa bakarrik.

Zygmunt Bauman-ek esaten zuen gizartea modernitate likidoan bizi dela. Hamen adibide argigarria: dena eginda, dena mamurtuta eta horrela ez badago, ez da ahaleginik egiten, bator eta badoa. Ez da ezer metatzen. Gainera, eurak digitalak dira. Zertarako egingo dute ahalegina? Eskuan daukate "segapotoa" eta hara jotzen dute. Zer esan gura du berba horrek? Ah, itxaron. Eta bat-batean aurkitzen dute mugikorrean. Sarean



dago jakituria; ez dago norberarengan edo besteengan. Egon eurak “dagoz” sarean hogeita lau orduetan. Kultura ez dago norberarengan, dago hor. Nik erabili egiten dut; eskuratu egin dezaket. Ez dira konturatzen pentsamendua eraiki egiten dugula. Sareak funtzionalitate jakin bat dauka, baina ezin ordezka lezake pentsamendua.

Horrez gain, joera handia ikusten dut gaiak era pasiboan hartzeko, ez sortzeko; bai erreproduzitzeko, ez produzitzeko. Produktiorako denbora gehiago behar duzu; kontsultatu egin behar duzu; metatu egin behar duzu pentsamendua. Azken baten, sortu, ez kopiatu bakarrik.

Aipatuz gatozen honek guzti honek, lehenengo mailako ikasleen giroa islatzen du. Ikasle unibertsitarioak goiko mailetara heldu ahala agertuko dira beste gora behera batzuk ere.

#### **14. Irakasleen aldera begiratuta, Wert ministro arrotzak giro etsigarria ekarri du zuontzat unibertsitateko irakasleontzat. Zertan datza kaltea?**

Lehenengoa, hamalagarren paga hori, zeinen aurrean Jaur-laritzak salaketa sartu duen. Kendu “deuskue” “por decreto ley”. Hori paga kentze hori soldata murrizketa da. Gainera, EHuko funtzionariook Wert-en menpe gaudenez, 32 kredituko dozentzia eman beharko dugu eta irakasle laboralak direnak gutxiago, 24 ordukoa. Guri orduak gehitzeak adieraziko luke, beste batzuentzat gutxiago izango direla, beraz, murriztu egingo direla plazak. Laburrean, soldata gutxiago eta lan ordu gehiago.

Ez da, bestalde, txantxetakoa ministro horren asmoa, hau da, magisteritza berriro bihurtzea hiru kurtsoko karrera, gaur egun indarrean den laukoa kendurik. Ea Wert zentralizatzaile horren proiektuak ez diren abian jartzen, batez ere, dirurik ez dutelako. Jakinik, gainera, derrigorrezko irakaskuntza gaztelaniaren eremu totalitarioa ezartzea eta botere zentraletik curriculumaren %75 erabakitzea ere gogoan darabiltzala.

### **15. Euskaldunen presentzia gora joan da unibertsitatean azken hamarkadetan. Hala da?**

Euskaraz matrikulatzen direnen artean bai, %90a dira euskaldunak magisterioko eskola honetan.

### **16. Zuen ustez, zergatik ez dira egiten tesi gehiago euskaraz?**

Batetik, errentagarritasunean pentsatzen delako. Holako aha-legina egitea euskaraz, gero ingelesez edo gazteleraz zabaltzeko... Goi mailako errentagarritasuna beste hizkuntzetan delako. Bestalde, ez delako sinesten euskaraz egiten dena pentsamendu eraikuntza denik, hots, pentsatzen delako beste hizkuntza baten egiten dela eraiketa linguistikoa eta intelektuala.

Edozelan ere, tesia gaztelaniaz egitea askoz erosoagoa da, zeren bibliografia guttia baitauekazu erdaraz. Bestela egin behar duzu euskarara ekarri. Horrek eskatzen du oso kontzientziatua izatea. Irakasle-eskola honetan gutxik sortu ditugu tesiak euskaraz.

Dena den, euskaraz idazten direnen kopurua apurka-apurka gora doa.

### **17. Zuek zeuek euskaraz burutu zenituzten tesiak. Zuk Gurutze zer gai landu zenuen?**

Gaia izan zen eskolan irakasten den historian Euskal Herria presente dagoen ala ez aztertzea. Horretarako, hartu genituen testuliburuak eta eurretan irakasten diren edukiak aztertu genituen, euskarazkoak, frantsesezkoak eta gaztelaniazkoak.

### **18. Era laburrean, Gurutze, zein izan da zure aurkikuntza, ekarpena?**

Maila teorikoan, gizarteak erreprodukzioa bideratzen duela hezkuntza sistemaren bidez. Edozein gizartek bere erreprodukzio kulturala eta jakituriarena eta pentsamenduarena bideratzen duela hezkuntza sistemaz baliaturik. Beste berba ba-

tzuetan, edozein umek ikasten duela ezartzen zaiona nahiz eta gero berak alda lezakeen apur bat bizitzan zehar. Orduan, ez dela erreproduzio huts hutsa izango, baina azken baten, gizartek erreproduzitzen dutela euren sistema eskola bitartekotzat hartuz. Euskaldunon kasuan, erreferente historikoa edo lurraldearena ez dela erreproduzitzen. Hori guztia frogatu dut zenbakiz neurtuta.

### **19. Bego, zure gaia eta egin duzun ekarpena zein izan dira?**

Hasi behar dut esanez entzun dugula: “Beno, baina zuek esan duzuen hori bagenekien”. Behar bada, zati baten egia da, Euskal Herriaren presentzia eskolan, eskolako ezagutzetan mugatua dela. Badakigu, gainera, editorial bakoitzak bere erara gauzatzen duela ekarpen hori, alegia, euskal munduaren presentzia. Gure ekarpenik inportanteena, nire ustez, maila diferentetakoak da:

Ikergai bakarra hartu dugula; hiruron artean osatu dugula ikerlan bakarra; marko teorikoa hiruron artean eraiki dugula. Gero, hortik abiatuta teoria kritikoa hartu genuela bidelagun eta horren bitartez eduki bera aztertu dugula.

Abiatu ginenean aztertzen hori, Euskal Herrian ez zegoen halako lanik. Ostean, Euskal Herriaren presentzia begiratzen hasi ginenean, erabaki garrantzitsua izan zen argitzea bakoitzak zein ikuspuntutatik landuko zuen gaia, zeren hiru tesi desberdin burutu beharra baitzegoen. Orduan, modu bitara konpondu genuen arazo hori: batetik, XX. mende osoa aztertuta. Horretarako, euskaraz argitaraturiko liburu guztiak banan bana arakatuta, beti ere, ingurumenaren ezagutzako arlokoak. Bestetik, arloa banatuta: Gurutzek oraintxe azaldu duen moduan, historia eta geografia jorraturaz: non bizi garen, nondik gatozen... Nik neuk testuliburuaren arabera, zer den euskara, zer den gure hizkuntza eta zeintzuk diren gure ezaugarri kulturalak. Beste era batera adierazita nik landu dudana: ezaugarri kulturalak eta euskara testuliburuetan.

## **20. Zure tesiaren muina zertan jarriko zenuke Karmele?**

Nik hirugarren kide legez, gai berean, ikertu nuen ogibideen mundua eta zientziaren eta teknologien garapena testuliburuetan. Horrekin batera islatu nuen testuliburuaren papera hezkuntza sistemaren barruan. Hau da, testuliburuaren dela tresna ideologiko bat, guztiz hegemonikoa. Tesi horren bitartez islatu nuen maila makropolitikoa eta mikropolitikoa zelako harremanak dauden eta zer dela-eta argialetxeak diren hain boteretsuak hezkuntza sisteman. Horrekin batera hirurok ikertu genuen zein den jokabidea kanpoko argialetxeen ikuspuntutik edo hemen sortutako argialetxeetan. Zer ekoizten duten batzuek eta besteek. Hiruron lana izan da, bakoitzak bere esparrutik landuta.

## **21. Orain zuek daukazuen ondare “amankomuna” base bat ere bada, zuek sortua. Zertan oinarritzen da base hori, liburuen azterketarako sortu duzuen tresna konplexu hori?**

Tresna bat da, objektiboa. Egin duguna da testuliburuetako edukia neurtu modu kuantitatiboan kategorizatuta eta modu kualitatiboan interpretatu.



## 22. Base hori baina klabe-banku bat da. Ezta?

Horri esker XX. mendeko testuliburuak banan bana arakatu eta aztertu ditugu, orriz orri eta ikonoz ikono. Gainera, tesi-rako neurtu ere egin genituen ikonoak eta ikonoetako edukia definitu ere bai. Horretarako 200 aldagai, bariabile, definitu “genduzan”, baita alde formalak aztertu ere: neurria, edukien alde formalak. Horretaz gain, liburuen formatoei dagozkienak ere badakizkigu.

## 23. Tesi osteko aroan hortik “mundutik andar” ibili zarete kongresuetan, jardunaldietan eta abar. Zer herrialde edo hiri edo estatu bisitatu dituzue unibertsitatearen ize-nean bidaiatu izan duzuenean?

Lehenengo “urtekerea” Copenhagen-era izan zen, AALBOR-Geko unibertsitatera. Ondorik, Vienako unibertsitatera jo genuen, baita Berlineko Librera eta Estanbulekora ere. Gant-en ere izan ginen eta Kolonbian Caucako unibertsitatean. Espainiako unibertsitateetan Savillara, Granadara, Santiago de Compostelara eta Madrilerara bidaiatu izan dugu. Hortik gora, ikerketan ere aritu izan gara Espainiako talde jakin batekin, ahaztu barik bertan eskaini izan ditugun berbaldiak-eta.



#### **24. Horietan atzerriko jardunaldi eta kongresuetan, zer iritzi dute zuen planteamenduaren aurrean? Antzera da-biltza?**

Kolonbiako egoera, kasurako, oso gogorra da. Mundu anglosaxoian, bestalde, gure diskurtsoak ez dauka arrakasta handirik, hain zuzen ere, eurek ez dutelako bizi guk bizi dugun kontraesana. Arrakasta handiagoa izan du Galizian edo Bordeleko unibertsitatean bertan, baita Kolonbian ere.

Beti ere, dena den, kongresuetako gaiak hain dira espezifikokoak ze, gure arazoa gelditzen da adabu antzera; ezpada, gai orokorra emakumeen gainean egindakoa edo. Osterantzean, edo gure kontuak ez dira ezagutzen edo oso urrun gelditzen zaizkie.

#### **25. Zeuen argitalpenetara etorrita, zer duzue estimagarriena?**

Guk euskaraz argitaratu ditugu ikerlanik gehienak eta arazoa da, euskaraz argitaratzen dena jende askok ezin irakurri duela, ez dakite euskararik-eta. Horrek muga bat sortzen du zabaltzerakoan. Edonola ere, guk ez dugu idazten euskarari buruz, jakituriari buruz euskaraz baizik. Hor gure kakoa, ez daukagula gai espezifikoko honetarako publiko nahikorik.

Bestalde, orain lau bat urterik hona gara Talde Finkatu, kontsolidatu bateko kide. Gure talde finkatua GARAIA deitzen da. Hezkuntzako ikerketa teorikoak eta konparatuak jorratzen ditu. Hor ere badugu beste webgune bat.

Hortik gora, proiektuen artean darabilgu Eskolaren Euskal Museoa sortzea ere.

#### **26. Norbaiti eman gura izanez gero era sintetikoan zuen berri, baieztatu daitezke curriculumeko espezialistak zaretela?**

Bai, besteak beste. Curriculuma da gure oinarritzko ibilbidea.

**27. Historiara jota, era laburtuan, hartzen badugu eskuetan Leizarragaren *ABC edo Christinoen instructionea* 1571koa, irakasteko lehen liburu moduan, ondoren zein urrats eman izan dira hezkuntzarako liburugintzan, gogoan izanik SAIOKA har daitekeela lehen liburu modernotzat?**

Maila horretan beste ekarpen bat ere badaukagu ze, XX. mende osoa aztertukeran ohartu ginen mende osoa ez dela modu berekoa. Guk SAIOKA baino apur bat lehenago amaitzen dugu lehen epea. XX. mendean hiru epe markatu genituen. Lehena, bukatzen da 1974an. Horra arte argitaratzen dena antzekoa da. Batetik, katiximak ditugu eta bestetik, hor mende hasieran 1918ko Kongresuaren eraginez sortzen diren XABIERTXO eta estilo bereko liburu asko, sartu arte trantsizioa deitzen den horretan. GORDAILU eta era horretako talde pedagogikoak ere indar handia dute. Ordura arte, ez da argitalexterik, dira edo talde pedagogikoak edo egileak bai testuarenak edo baita irudienak ere.

1974ko epealdi honetan, liburuak orokorrangoak dira. Egileek gai guztietan dihardute; batzuk dira maisuak, beste batzuk editoreak eta den-denak euskaltzaleak.

Artean, Pizkunde aroa heldu arte, ale bakanak topatuko ditugu. Ezin ahaztuko dugu testuliburu eskolarekin lotzen dela. Zerbait egiten bada, egiten da eskolarako. Horretan, gogoan dugu Moyano legea -Ferry Ipar Euskal Herrian-. Beti ere, kontuan harturik Ferreren planteamendua libururik ez erabiltzea zela, kontsulta moduan edukitzea. Hegoaldean, aldiz, kontrolari askoz estuago eutsi zitzaion.

**28. Azken 30 urteetara etorririk, Mikel Zalbidek dio neska-mutilen gaitasun maila dela-eta, “euskaraz nolabait” dakitena ugari direla. Hori horrela, euskal kulturarekin ere ez dira “nolabait”, zelan edo halan bakarrik jabetuko?**

Testuliburuetan ikusi duguna da, honenbeste liburu itzuliak direla, ez euskaraz sortuak. Eskolan gerta liteke, agian, euskara tresna komunikatibo hutsa izatea, ez kulturatik hartutako hizkuntza, lehen etxetik edo auzotik hartzen zen moduan. Abiapuntutik beretik aipatu dugu kulturaren arloa eta hizkuntzarena dibortziatuta bizi zaizkigula. Irakasten da euskaraz, baina erdal edukiekin. Halandaze, euskal eraikuntza hori nekez gertatzen da; ia etenda dago. Ia ez gara erreproduzitzen kulturalki.

LOGSE legeak Espainiakoak ekarri zuena da argitaletxe estatalek itzulpenak egitea; euskarara ekartzea euren testuak. Une honetan, gehiago saltzen dira liburu euskaratuak. Ondorioz, hizkuntza itzuliak kultura arrotza ekarri digu. Gure kultura ez da ageri halako liburuetan.

Fenomeno hori, bestalde, ez da sortu egun batetik bestera; sortuz joan da. Autonomien antolaketa honetan argitaletxeek ikusi zuten berdin antzera irakats zitekeela orri batzuk aldatuz, egokituz gero autonomia bakoitzerako. Hortik datoz joera horiek. Ondorioz, liburuak gero eta uniformeagoak dira.

## **29. Etorkizunera begira, euskal eskolak zer berezitasun beharko lituzke?**

Hasteko eduki beharko luke 0-6ko eskola umeentzat, hiztun aldetik, irakaslerik trebeenak, Finlandiako ereduari jarraituz. Han irakaslerik onenak haur-hezkuntzan ari dira.

Hezkuntzarako materiale aldetik, berton sortuak, euskaldunok ekoiztuak. Nahiz-eta hor gertatzen den fenomeno bat, jendea dago dioena bertokoa irakatsirik galdu egiten dugula unibertsala. Guk tesietan frogatu duguna da, partikularra jorratzen dugula eta geurearekin ondo jabeturik irits gaitezkeela unibertsalera. Behar beharrezkoa dela geuretik abiatzea.



### **30. A, B, D ereduak zer hausnarketa merezi dute curricularen ikuspegitik so eginez gero?**

Ez dugu problematika hau beren beregi aztertu, baina ikastolak izan arren edo D ereduan jardun arren, erabiltzen diren liburuak estatalak dira gehien baten eta plangintza edo programazio bereziak daudenetan lortzen da euskal kulturaren transmisioa, baina ostantzean ez, D ereduan ibili arren. Adibiderako: euskara irakasten den liburuan eta literaturakoan aurkitzen duzu euskal lurraldea, baina ez geografia ikasten duzun liburuan. Gero hori islatzen da identitatearen eraikuntzan.

### **31. Azken buruko itauna. Zuek baduzue hemen erakusketan eder bat, Magisterioko Eskolako hallean Emakume Abertzale Batzaren ingurukoa. EMAKUMEAK HITZA ETA BIZITZA liburua ere -zeuek bildua- hor agertzen da. Horrekin baliatuz zein ikerketa bide indartu gura duzue?**

Jadanik gure tesirako erabili genuen aldagai bat generoarena izan zen. Badakigu testuliburuetan generoak zer tratamendu daukan. Horien gaineko datuak argitaratuak ditugu. Oraingo erakusketan-eta zabaldu egin dugu esparrua. Begiratu dugu emakumeak maistra izan direnean zelako formazioa hartu duten eta zer eragin izan zuten. Ibilbide horretan, aukera agertu zitzaigun Emakume Abertzale Batza bera aztertzeko. Kontua da, guretzat azterketa hori aitzakia izan dela, zabaltzeko gehiagorekin gure ikerketa esparrua eta Magisteritza-Eskola honek Bilbon betidanik eduki duen eragina. Guk ikasi egin dugu ikerketa lerroko sail hau zabaldurik.

Gainera, emakume horiek bultzatu zituzten euskal eskolak –gehienak Bizkaian– eta asko eta asko Bizkaiko Magisteritza-Eskolan ikasitakoak izan ziren. Beste alde batetik, ordukoak ere ibili ziren, indarrean zegoen eskola ereduaren aurka lan egiten. Emakume Abertzale Batzakoan analisiak erakutsi “deusku” orduko hartan zer material motaz baliatzen ziren; zer

pedagogia bultzatzen zuten; azken baten, haien abertzaletasuna zertan finkatzen zen.

Hizkuntzaren irakaskuntzan, Belgikara eta arazo beretzua zuten beste herrialde batzuetara ere jo zuten. Orduko haien gaiak gaur bertan ere pil-pilean diraute.

Aiko hemen, irakurle, ahozko testua idatzira aldaturik. Eskuaren joskera baino ahoaren janzkera darakutsana. Hiru euskaldun elkartzen direnean lau iritzi ez direla sortzen ager diezagukeena. Hiztunaren ukitua nahiz euskalkiaren bipila noizbehinka oparitzen diguna. “Peractum est”.

*Juan Luis Goikoetxea Arrieta*